

FITXA: 266 – Euskadiko irakurketa publikoko sareko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko eta/edo garatzeko 2026rako dirulaguntzak arautzen dituen deialdiaren oinarriak.

Nori zuzendua: Oinarri hauetan ezarritako laguntzak jaso ahal izango dituzte liburutegi publikoen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalek, toki-erakunde eskudunek eta udal liburutegi publikoen arloko eginkizunak esleituta dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udal-erakundeek.

Deialdia: EHAA - Euskal Herriko **Deialdiaren data:** 2026/08/31
Agintaritzaren Aldizkaria

Sarbide-esteka:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0095913>

Erreferentziazko araudia: AGINDUA, 2026ko uztailaren 15koa. -
<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2026/08/2603738e.pdf>

Eragin eremuak: Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kirola

Zenbatekoa: 250.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2026/09/01

Aurkezteko azken eguna: 2026/10/01

Aurrerakina: Ez da zehaztu

Aurrerakinaren gehieneko %: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: 100.000,00 €

Gutxieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.

Tramitazioa: Norgehiagoka.

Laburpena

Oinarri hauen bidez, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko edo garatzeko dirulaguntzak ematea arautzen da, 2026ko ekitaldirako.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Honako hauek eskuratzea eta/edo instalatzea lagunduko da diruz:

- a) Hardwarea edo euskarri fisikoa.
- b) Softwarea edo sistema informatikoen euskarri logikoa.
- c) Telekomunikazioak. Komunikazio-sareak instalatzea, kableatuak zein hari gabekoak.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Oinarri hauetan jasotako araubidearen babesean diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartzeko, aurkeztutako eskabidean jasota egon behar da, eta diruz lagundu daitezkeen jarduketa gauzatzearekin lotuta egon behar da, argi eta garbi; izan daiteke erosketatik eratorritakoa, errentamenduari dagokiona, edo diruz lagundu daitezkeen elementuen erabilgarritasuna benetan bermatzen duen beste edozein sistemari dagokiona.

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntza justifikatzeko agiriak 2026ko abenduaren 18a baino lehen aurkeztu beharko dira.